

Aste Santuko  
oporraldian,  
nora?

«Lasaitasuna eta eguraldi  
ona» bilatzen du turistak ▶ 2



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2006-04-13 ▶ IV. urtea ▶ 862. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## «Aurreikusi bezala, Leidor ekainerako prest izango da»

**TOLOSA** ▶ Lanak hasierako epemuga errespetatuz amaituko direla ziurtatu du Jokin Bildarratz alkateak  
**JARRAIPENA** ▶ Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Ahalduen Nagusiak bisitatu zuen atzo antzokia ▶ 4



Bildarratz (erdian) eta Gonzalez de Txabarri (eskuinean), atzo. E. EZEIZA



## Inoizko emaitzarik onenak lortu ditu iraupen eskiko Alpino Uzturre taldeak

**TOLOSA** ▶ Egin duten denboraldiarekin gustura dira Alpino Uzturreko iraupen eskiko taldekoak. Euskadiko eta Espainiako txapelketetan domina ugari irabazi dituzte, nazioarteko probetan ere lehiatu dira, selekzioarekin... Miguel Angel Txiki Plazasek gidatu du taldea; haren esanetan, «iraupen eskia praktikatzeko familia osoaren inplikazioa behar da». HITZA ▶ 3

**ALEGIA** ▶

## Jesus Lopez Zuluetaren margolanak, Jubilatuaren tabernan

Margotzen bizi erdia  
darama artistak;  
Venezuelan egin  
zituen ikasketak ▶ 6



Jesus Lopez Zulueta. N. URBIZU

TURISMOA ▶

# Eta Aste Santuan... nora?

Gaur hasiko da oporraldia eta dagoeneko bi eskualdeetan turistek prest dituzte mailetak; batik bat, «lasaitasuna eta eguraldi ona» bilatzen dituzte 5 egunotan



Nerea Goikoetxeak Villabonako Bidaide bidaia-agentzian egiten du lan. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Azkenean heldu da Aste Santua. Askorentzat irteeraxoren bat edo beste egiteko aukera paregabea. Horietako batzuk aspalditik erabaki dute nora jo; beste batzuk, aldiz, azken unera arte itxaroten dute. Badira, halaber, etxean geratzen direnik ere; eta, noski, ezin ahantzi jai egunak izanagatik, lanera joan behar dutenek.

Bezeroen eskariak aldatu egiten dira, haien nahien arabera. Horrelaxe azaldu dio, bederen, Hitzari Villabonako Bidaide bidaia-agentziako Nerea Goikoetxeak. «Bi faktore bal-

dintzatzen dute eskaria: bezero mota eta bezero honek oporretarako dituen egunak zenbat diren». Hala, bi eskatzaile mota banatu ditu Goikoetxeak, batik bat; batetik, umeak dituzten familiak. Hauek «lasaitasuna eta eguraldi onaren bila doaz». Horretarako, kosta aukeratzeko dute «Mediterraneo aldea, gehienbat». Egun gehiago dutenek, berriz, «Kanariar uharteetara eta Balear uharteetara jotzen dute».

Eta, bestetik, bikote gazteak, abenturazaleak eta umerik gabeko bikoteak daude. Hauen kasuan oporretarako gunea aldatu egiten da; izan ere, «batera eta bestera aritzea eta le-

kuak ezagutzea bilatzen dute». Hori dela eta, hauen artean Europako hiriburuak, Egipto eta Tunez bezalakoak dira aukeratuak, orokorrean.

## Aste Santuan, garestiago

Lehenengo aldiz bidaia-agentziara sartzean «guztiek ez dute erabat argi zer nahi duten». Denetik dagoela azaldu du Goikoetxeak; «umerik gabeko bikoteek eta abenturazaleek gehiago galdetzen dute eta aholku bila datoz askotan; familiek, berriz, argiago izaten dute haien nahia, orokorrean».

Diru kopurua ere erabakigarria izan ohi da aukeraketa bu-

rutzerako orduan. Goikoetxearen esanetan, «garestia izateak baino urteko beste sasoeikin alderatuz izaten den diferentzia nabarmenak harritzen du jendea». Izan ere, Aste Santuko bost egun hauek, uztaila amaierarekin eta abuztuarekin batera, «urteko garestienak dira; leku askotan hiru bider garestiago». Hori dela eta, umerik gabeko bikoteek eta gazteek, egutegi malguagoa dutenez, «abuztua ekiditea nahiago dute, beste urte sasoi batean bidaiatuz». Umeekin, aldiz, «zailagoa da aukeratu ahal izatea».

Jendea «mugitu mugitzen» dela dio Bidaideko arduradunak. «Jazko Aste Santutik igerridut igoera eskariatzen». Sasoi gehienetan ere oporretara joateko lekuak antzekoak direla gaineratu du. Bada, salduenak aurten, «Mediterraneo kosta eta Kanariar uharteak familietan eta Paris, Estambul, Egipto eta Tunez gazteetan» izan dira. Gertuago geratzen denik ere bada; hala, «Kantabria eta Asturias (Espainia) ere bete egingo dira aurten». Gutxiagok egin dute Euskal Herria ezagutzeko aukera, jendeak egun gehiagorekin «kanpora joateko ohitura duelako». Gurean geratzeko, aldiz, «asteburuak hautatzen dituzte». Hego Ameriketarako bidaietan, berriz, «hemen ohitura dugu gegaldirak soilik erosteko, abentura bila doazentzat». Estatu Batuak edo Mexiko bezalakoak, berriz «eztei-bidaian izaten dira, batik bat». Bere aldetik, Goikoetxeak oraindik turismoak ia-ia hartu ez dituen «lurralde zoragarriak» aipatu ditu, esaterako, «Almeriako Gatako lurmuturra (Espainia), Frantzia erdialdea eta La Palma uhartea (Espainia)».

**INKESTA** ▶ Aste Santua gainean da: Kanpora al zoaz oporraldi honetan? Hala bada, nora egingo duzu bidaia?

**MIREN HERRERO**

TOLOSA



«Egia esan aurten hemen g e r a t u k o gara, denborarik ere ez dugu izan prestatzeko; bi umeekin zaila da. Beraz, egun-pasa joango gara Euskal Herritik».

**IÑAKI SUSO**

TOLOSA



«Ni kanpora joango naiz Aste Santua igarotzera. Askotan jarraitzen gara Etxarriko kanpinera. Nire familierekin joango naiz eta han lagun batekin elkartuko naiz».

**MARIA PILAR ZINKUNEGI**

TOLOSA



«Normalean Errioxara joaten gara bi seme-alaba eta laurok, baina aurten lana egin behar dut eta hemen geratuko gara familia. Gure baserriera joango gara».

**ANA ROSA GORROTXATEGI**

TOLOSA



«Ez daukagu o hiturarik kanpora joateko Aste Santuan, gainera lanagatik ezin dugu aurten. Umeekin zailagoa da, erosotasunagatik geratzen gara. Eguraldi ona egi- ten badu irteerak egingo ditugu inguruan».

hilberria ▶

**Maria Valentina Artola Olaetxea**  
andrea (Urbano Sagredoren alarguna)

2006KO APIRILAREN 12AN hil zen, 92 urte zituela.

Jesusek esan zion: «Ni naiz berpizte eta bizia. Niregan fedearen eragiten duena, nahiz eta hil, biziko da». (Juan 11:25)



Seme-alabak: Izaskun, Jose Ignacio eta M<sup>a</sup> Jose, Luis M<sup>a</sup> eta Miren, Juan M<sup>a</sup> eta Maite; bilobak: Juan Ramon, Iñaki eta Saioa, Ainhoa, Aitziber, Ion, Miren eta Ainara; birloba: Iradi; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Bere oroitzapenean Jehovaren Kristau Testigu Erreinuaren aretoan bibliako hitzaldia ospatuko da GAUR OSTEGUNA, eguerdiko 13:00ETAN.

oharrak ▶ gorputz beldu Tolosaldeko Funeraria Vascongada belduak dago. Gorpu laguntza beste familia artean Lizartzako hilerria egingo da gaur arrotzaldeko 17:30ean.

hildakia ▶ Izaskun auzoa 3, 3. eskubia

TOLOSA, 2006ko apirilaren 13a

hilberria ▶

**Britney Ribalta Aguilera**  
(Haurra)



Mototsak ilean  
«que lindo» ezipainetan  
beti izango zaitugu Britney  
gure bihotzean

Domingo Agirre eskola

LEGAZPI, 2006eko apirilaren 13a

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan**  
**50.000 etxetara**

HITZA guzfitan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

KIROLA ▶

JOXEMI SAIZAR

# Inoizko emaitzarik onenak

Iraupen eskiko Alpino Uzturre taldeak denboraldi bikaina burutu du: Euskadi eta Espainiako txapelketetan domina ugari, nazioarteko probetan izan, selekzioan...

**A**benduan hasitako iraupen eskiko denboraldia amaitu da. Udaberria iristearekin batera elurra gure mendietatik desagertu da eta eski estazioak itxi egin dira. Udan hasitako entrenamenduak eta denboraldi osoan botatutako izerdiek bere ondorioak izan dituzte: Alpino Uzturre elkartereko eskiatzaileek inoiz lortutako emaitzarik onenak izan dituzte. Txiki Plazas entrenatzailearen lana eta gurasoen laguntza ezinbestekoa eta txalotzekoa izan da.

Guztira, 16 federatu lizentzia egin ditu aurten taldeak, 11 Tolosaldekoak eta bost Goierrikoak. Denboraldiko proba gehienetan hartu dute parte. Batzuk, gainera, nazioarte mailako probetan izan dira, Europako eskiatzaile onenekin beren burua neurtzen.

## Dominak eta lorpenak

Joseba Rojo promesa izatetik Espainiako eskiatzaile onenetakoa izatera pasatu da denboraldi honetan. Kadete mailako bi urrezko domina irabazi ditu Espainiako Txapelketan eta Euskadiko txapelduna izan da bi estiloetan, klasikoan eta *skating*-ean. Marxa Bereten —estatuko jendetsuena— 10 kilometrotako lasterketa irabazi du, maila absolutoan. Espainiako Kopa irabazi du. Europako Kopako bi probatan parte hartu du, Austrian eta Frantzia, eta Italiako Alpeetan izan da entrenatzen Espainiako selekzioarekin.

Bere anaia Imanol Rojo ez da atzean gelditu. Nahiz eta bi urte gazteago izan, kadete mailan laugarren izan da Espainiako Txapelketan —podiumetik segundo gutxira— eta Euskadikoan bigarren izan da, bere anaiaren atzetik. Marxa Bereten seigarren izan da. Europako Kopako proba batean izan da partaide, Austrian, eta gazte mailako Europako proba garrantzitsuean, Topolinon. Espainiako selekzioarekin izan da entrenatzen Candanchun, La Molinan, Italiako Alpeetan...

Erlantz Gonzalez hirugarren izan da Euskadiko Txapelketan, Rojo anaien atzetik, Marxa Bereten zazpigarren 10 kilometrotan, Topolino proban izan da eta Espainiako selekzioarekin Italian, Candanchun, La Molinan... Espainiako Txapelketan ez zuen parte hartzerik izan gaixo zegoelako.

Xabier Saizar aglutxo mailan Espainiako txapelduna izan da klasikoan eta bigarrena *skating*-ean, eta bi proben batuketan eginez txapelduna gertatu da. Topolino proban ere



Alpino Uzturre elkartereko iraupen eski taldean aurten aritu diren eskiatzaileetako batzuk, proba baten ondoren. ALPINO UZTURRE

izan da, eta Espainiako federazioko teknifikazio taldean dago.

Txiki Plazas entrenatzailea bera eta Peio Gorostegi beterranoak, Aitor Igarategi juniorra, Jon Saizar, Beñat Irastorza, Ibai Mendia eta Xabier Murgia ere aritu dira konpetitzen taldean.

## Neskak eta etorkizuna

Beste kirol askotan bezala, neska gutxi ari da iraupen eskia praktikatzeko. Baina Alpino Uzturren badira batzuk, eta maila ona ari dira erakusten. Amaia Mujika Euskadiko txapelduna izan da kadete mailan eta Espainiakoan seigarrena. Beterano mailan Lourdes Irastorza Euskadiko txapelduna izan da eta bigarrena Espainiako Txapelketan. Eneritz Gonzalezek eta Erea Lopezek ere proba gehienetan hartu du parte.

Datorren denboraldiari begira, Jacan (Espainia) egingo diren Europear Gazteen Olinpiar Jokoetarako Espainiako federazioak aukeratutako bost fondisten artean, bi Alpino Uzturrekoak dira: Imanol Rojo eta Erlantz Gonzalez. Horrek esan nahi du aurtengo udan edo udazkenean glaziarren batera —Stelvio, agian— joango direla selekzioarekin proba garrantzitsu hori prestatzera.

## TXIKI PLAZAS ▶ ENTRENATZAILEA

# «Iraupen eskia praktikatzeko familia osoaren inplikazioa behar da»

Iraupen eskia betidanik gertutik bizi izan du Miguel Angel Txiki Plazasek. Urte askotan konpetizioan eta gaur egun entrenatzaile gisa, baina praktikatzeko eta konpetitzen utzi gabe.

### Zer moduzko denboraldia izan da taldearentzat?

Oso ona, beti puntan ibili dira taldeko batzuk. Espainiako Txapelketan Joseba Rojo bi urrezko domina lortu ditu eta Imanol Rojo laugarrena izan da, baina podiumetik oso segundo gutxira —hau azpimarratu nahi dut, oso gaztea delako eta meritu izugarria duelako—, Xabier Saizarrek urrezkoa irabazi du, aipatutakoek eta Erlantz Gonzalezek Europako konpetizioetan parte hartu dute, selekzioan izan dira... Ez dut uste inoiz horrelako emaitzarik lortu denik hemen.

### Noiz hasten dituzte entrenamenduak?

Irailan, baina batzuk lehena-gotik hasten dira bere kontura.



TXIKI ORBEGOZO

### Eta nola antolatzen dituzte?

Nirekin astean bi egunetan aritzen dira eta gero beste bi edo hiru egunetan bere kontura.

### Eta zer lantzen dituzte?

Nirekin eskailerak, erritmo aldatetako eta serie lanak egiten dituzte. Bere kontura, roll-skia, muskulazioa gimnasioan eta entrenamendu aerobikoa, mendian oinez eta korrika,

txandaka. Denboraldia aurreratu doan neurrian, gero eta gehiago korrika eta gutxiago oinez.

### Eta datorren denboraldia begira zer asmo duzue?

Emaitzak errepikatzea.

### Ba al dago harrobirik?

Oso zaila da. Iraupen eskia ez da Berazubini egiten, etxetik 200 kilometrotara baizik. Elurrik ez dagoen herrian bizi gara. Praktikatzeko familia osoaren inplikazioa behar da, eta hori eragozpena da. Ikastaroak eta autobusak antolatzen dira, baina gero guraso eskiatzaileen seme-alabak ari dira eskiatzen. Bestalde, guraso batzuk seme-alabekin zale-tu dira.

### Zer moduz zure denboraldia?

Gipuzkoako txapelduna izan naiz senior mailan. Marxa Bereten parte hartu dut eta, lehen aldiz, Trasjursasiennen eta Vasaloppeten. Azken hau izugarria da, Behobia-Donostia lasterketa, baina eskiz. ◀

HIRIGINTZA ▶

# Bildarratz: «Hasierako epeak errespetatuz, Leidor berria prest egongo da ekainerako»

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Ahaldun Nagusia eta Tolosako Udaleko ordezkariak antzokiaren eraberritze lanak ikusten izan ziren atzo



Agintariak lanen berri jasotzen, atzo, Leidor aretoaren barruan. E.EZEIZA



Leidor aretoko eszenatokia, obretan, atzo. ESTI EZEIZA

## ESTI EZEIZA

«Oraindik ere egiteko asko egon arren, aurreikuspenek zioten bezala, antzokia prest egongo da ekainaren erdialderako, hau da, Abesbatzen Europako Sari Nagusietarako». Hitz horiekin hasi zuen, atzo, Jokin Bildarratz alkateak Leidorreko lanetara egindako bisita. Harekin, Andoni Iturzaeta Kultur zinegotziarekin eta beste hainbat ordezkariarekin batera izan zen Leidorren Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Ahaldun Nagusia. Aretoaren lanak gertutik ikusi nahi izan zituzten guztiek.

Bildarratzek behin eta berriro eskertu zion Diputatu Nagusiari emandako laguntza; izan ere, aldundiaren interbentzioa %50ekoa baino handiagoa izan da, bai proiektuan, baita maila ekonomikoan ere. Hasiera batetik azpimarratu nahi izan zuen «Aldundiaren gertutasuna lanen jarraipena egiterako garaian».

## Lanen hiru ardatzak

Alkateak azaldu zuenez, Leidorren berritze lanak hiru ardatzetan oinarritu dira: erosotasunean; honetarako, akustika eta klimatizazioa hobetzeko lanak egin dira. Bigarrenik,

egungo beharretara egokitzean. Eta, azkenik, tranpaldoan, hau da, lehen baino eskenatoki handiagoa egitean.

Gonzalez de Txabarri adierazi zuenez, «Aldundiaren helburua Gipuzkoaren garapena da, horregatik, Tolosako Udalarekin hainbat proiektutan elkarlanean ari gara, Tolosa Europako beste hirien mailan egon dadin. Gipuzkoako bigarren eskenatoki handiena izango da Leidorrekoa; hori dela eta gainontzeko antzoki handiekiko sinergia erabiliz, eskaintzaren sozializazioa egin ahal izango da, herritar gehiagorengana heltzea bideratuz».

Eraikuntza lanen arduradunek bisitaldian zehar azaldu zuten, «hasieratik argi zegoen eraikinak hiru ezaugarri bete behar zituela: eskenatokiari ahalik eta etekin handiena ateratzea batetik. Gune publikoarekiko errespetua ere mantentzea; izan ere, antzokia hiriaren erdigunean kokatua dago eta honek eragindako inpaktua gutxitzea lortu nahi zen. Azkenik, eserlekuak mantentzen saiatu dira, nahiz eta azkenean gutxitu egin behar izan dituzten».

Nahiz eta oraindik zehazteke egon, programazioari dagokionez, hainbat ekitaldi hitzartuta daude Leidor berrirako.

## Urtebete lanetan



Leidor eraikuntza lanetan. J. S.

Aurreikuspenen arabera bi hilabete inguru geratzen dira Leidor zinemak atek berriro irekitzeko. Joan den urteko azaroan hasi ziren eraiketa lanak. Baina honen aurretik, zinemazale talde batek proposatutako filmeekin eman zitzaion agurra antzoki zaharrari. Berrikuntza lanak, hornikuntza eta eszenatokia hobetzeko asmoarekin hasi ziren. Lan hauetan Chemtrol Division Teatro S.A. enpresa ari da, hasiera batean 730.764,74 euroko aurrekontuarekin. Bigarren atala eserleku eta palkoei dagokiona da; honen instalazioaz Ascender S.L. enpresa arduratu da, 182.222 euroko aurrekontuarekin. Barneko lanen azken atala, altzari eta osagaien hornikuntzari dagokio. Lan hauek Bigara, Equipamiento de Oficina S.L.-k egin ditu, 22.092,61 euroko kostuarekin. Eraikinaren barneko ogrez gain, kanpoan dagoen Gipuzkoa plazan ere berrikuntzak egin dituzte.

Aldaketa nabarmena jaso du Leidor antzokiak eraberritze lanak amaitzen direnerako. Orokorrean, hauek izango dira aldaketa nagusiak: 1.000 eserleku izatetik 880 izatera pasatuko da. Hala, eserlekuen arteko tartekak 20 zentimetro zabalagoak izango dira. Agertokiari dagokionez, aurrekoak 20x9 metro zituen, eta berriak 12x14 metro izango ditu. Sakoneran, 14 metro izango du oraingoak, aurrekoak baino 5 gehiago, eta zabalera, 8 gutxiago. Horrela, patioko toki guztietatik ondo ikusi ahal izango da agertokia.

Eraberritzearekin batera, eraikina klimatizatu egongo da, eta zeuden akustika arazoak ere konpontzea espero dute. Honela, emanaldiak indartzea lortuko dela uste dute arduradunek.

GURE ESKUBIDEEN ALDEKO  
KONPROMISO SENDOA  
EUSKAL HERRIAK NAZIOA

“Euskal Herriko herritar guztiek, hala nola getoko behar guztiak, euskaraz bizitzeko eta eraberritze eskubidea dute, eta hori eraberritzea da.”

APRILAK 16  
ABERRI EGUNA 2006

ERABERRITZE  
HERRIETAN EKITALDIAK

ERABERRITZE  
EKITALDI NAZIONALA

IRUÑEAN

AMATU NAZIO BERRITZEAREN

UDALBILITZA



**GUTUN@K ▶**

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

**Aberri Eguna**

Hurrengo igandea, apirilak 16, Aberri Eguna da. 1931tik, egun hau gure Herriaren eguna izan da, eta, beste herri askotan egiten den antzera, gure nazioaren berrespen baketsu eta kolektiboa ospatuko dugu. Egundun honekin, euskaldun guztiak batzea dugu helburu, geure nortasunaren adierazpen askea eginez eta geure herriaren biziraupen borondatea alaiki aldarrikatuz.

Euskal Herria nazioa da, eta nazio bati dagozkion eskubide politikoak ditu.

Herri bezala, nazio bezala irautea eta garatzea dugu helburu, ez baitira makalak. XXI. mende honetan, etorkizunari

begira ditugun erronkak. Izan ere, hor dugu aurrez aurre, munduan zehar, globalizazioaren fenomeno. Globalizazio honek errotik astintzen ditugure gisako herri baten ekonomia, kultura, hizkuntza eta gizartea bera ere. Eta uniformizazio fenomeno horri erantzuteko beharrezkoa da herri honek bere baliabide politiko, instituzional, ekonomiko edo kulturalak zehaztu eta bideratzea. Horretxegatik gatoz, hain zuzen ere, Aberri Eguna ospa dezaten gonbitea luzatzea hiritar guztiei.

Horretan ari gara, Euskal Herriaren nazio kontzientzia demokratikoan sakonduz, herri bezala aurrera egiteko lanabesak martxan jartzen. Aipatu erronka horiei ekiteko

an Euskal Herriak bidean aurkitzen dituen zailtasunak ez dira nolanhakoak, eta horiek gainditu eta ezabatzea da gure helburua, euskal herritar guztion arteko eztabaida demokratikoari bide emanez, gure arteko harremanak sakonduz eta herri honen etorkizun politiko, kultural, ekonomiko nahiz hizkuntza alorrekoari berme eskainiz, inongo indarkeria edo inposaketa jarraituz gabeko giroan.

Horregatik, ozenki adierazi nahi dugu euskal herritar guztien borondate librearen gainean soilik eraiki daitekeela Euskal Herria nazio moduan, inolako aurrebaldintza eta mugarik gabeko eztabaida demokratiko eta politikoaren bitartez. Herritar eta ideia an-

tzez osaturiko herri honetan dauden proiektu politiko guztiak leku izango duten eskegnatoki demokratiko eta bakeetsuaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu gure gain.

Ospakizun eguna da, baina baita konpromisozkoa ere, euskal gizartearen etorkizuna bakean, justizian eta askatasunean eraiki nahi dugulako. Euskal Herriaren eguneroko eraikuntzan orain artean egindako bideari jarraitzeko borondatea agertzen baitugu, zita horren bidez.

Aurtengo Aberri Eguna, bada, euskal gizartearen aniztasun sozial eta politikoa oinarritzat hartzen duen nazio eraikuntza libre eta demokratikoari zabaltzen dio leihoa, al-

derik alde, inposaketa eta zapalketa orori aurre eginez, irekitasuna ikurtzat harturik. Gatazka politikoa eta honen ondorio larrirentzat behin betiko soluziobidea mahi gainean jarritz, alegia, burujabetza eta lurraldetasun eskubideak ezagutuak izango dituen Euskal Herriaren onarpena.

Beraz, herrigintza guztion eginbeharra da, eta guztiok behar gaitu, inor baztertu gabe. Etorkizuna euskal herritarren eskuetan dago, herri honen eraikuntza nazional eta demokratikoaren eskuetan. Horregatik, dei egiten diegu herritar guztiei, Aberri Eguna guztion artean alaiki ospa dezagun.

**JOKIN BILDARRATZ ▶**  
TOLOSAKO ALKATEA

**TOLOSA ▶ KIROLA**

**Samaniego eta Orixekoen lorpenak**

**Emitza onak eskuratu dituzte eskolako eta Institutuko ikasleek**

**ERREDAKZIOA**

Samaniego eskolako eta Orixe Institutuko kirolariak emitza eta lorpen oparoak eskuratu dituzte berriki. Esaterako, seigarren mailako neska-mutikoak Zestoan jokaturako bote luzekeo Gipuzkoako Txapelketan txapeldunorde izan ziren.

Atletismoan, Lasarten jokatutako proba konbinatuen Gipuzkoako Txapelketan sailkapen ezinhobeak izan dituzte: alebin nesketan Irune Agirrezabala izan da txapeldun, Mirreia Igartua bigarren eta Nerea Gangoitia ere onenen faserako

sailkatu eta 11. geratu da; infantil mutiletan Lander Gil nagusitasunez gailendu da. Bestalde, Samaniegoko alebin neskek atletismoko eskolarteko Gipuzkoako Txapelketan bigarren izan dira eta erreleboetako (4x60) Gipuzkoako txapeldunak izatea lortu dute.

D.B.H 2. eta 3. mailako mutilak, berriz, Gipuzkoako Coca-Cola fasean garaipena erdietsu dute eta Espainiako Txapelketara joango dira. Azkenik, 5. mailako ikasleak Reala-Bartzelona partida ikusi ahal izan zuten *Realeko amets bat* programaren baitan.

**ERLIJIOA ▶**

**Tolosaldeko 388 erromes Arantzazun**

Pasa berri den larunbatean, Gipuzkoako Gotzaitegiak antolatuta, urteroko Arantzazura martxa egin zuten. Tolosaldeko autobusez joandako erromesak 388 izan ziren, eta horiez gain bere kabuz joandakoak ere izan ziren.



Eguraldi ederra izan zuten Arantzazura joandako erromesek. HITZA

**ORENDAIN ▶**

**'Ingurumena' obra udaletxeko areto nagusian, etzi**

Orendaingo Udalak *Ingurumena* antzezlanaren emanaldia antolatu du etzirako, hilak 15, udaletxeko areto nagusian, 17:00etan. 4 eta 10 urte bitarteko haurrentzat zuzenduta dago bereziki obra hau.

**ADUNA ▶**

**Zabor bilketa larunbatean egingo da**

Festa egun hauek direla eta, zabor bilketa egunak aldatu dira. Bihar eta astelehenean ez da jasoko, eta bai, etzi, larunbatean. Astelehenetik aurrera egutegi normala jarriko dute berriro martxan.

**IKAZTEGIETA ▶**

**Olaberria lehian, gaur, Munduko Txapelketan**

Leire Olaberria txirridulari ikaztegiatarra Bordelen (Frantzia) lehiatuko da gaur Munduko Pista Txapelketan. Jazarpen proban ariko da, Sydney (Australia) jokaturako Munduko Kopan zilarrezko domina lortu zuen proba berean.

**TOLOSA ▶**

**'Goenkale' telesaileko grabaketa**

ETBko *Goenkale* telesail egunaren grabaketa burutuko dute datorren asteartean, hilaren 18an, Tolosako udaletxeko pleno aretoan, 10:00-etatik 12:00-etara. Saio horretarako figuranteak behar dituzte. Betebeharrak 20 urtetik gora izatea da. Interesatuek saioa hasi baino lehen agertu behar dute pleno aretora. s

**Beti Añi jatetxea**  
Garaian garaiko janariak  
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

**TOLARE-SAGARDOTEGIA**  
**SARASOLA**  
Jatorrizko Sagardoa  
Sagardotegia - ASTEASU  
Tel.: 943 69 02 83  
Larunbata eta igandetan eguerdian irekita  
Zumalkardi Baserria - ANOETA  
Tel.: 943 65 26 22

**Udaberriko sustapena**  
Apirilean, maiatzean eta ekainean bakarrik.

8 geranioz osaturiko erretilua **14€**

“Zatuz gure instalazio berriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dijoan loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu.”

Ramón Zuloaga (Zuloaga & Gureak-eko Gerentea)

943 556 109 - Iparralde bidea 2/g. 20014 Astigarraga. Futbol zelaiaren aurrean.

## ALEGIA ▶ ERAKUSKETA



**Beasaingo Andre Maria Jasokundearen parrokia.** Hau izango litzateke gizakirik gabeko koadro gutxienetako bat: erliebea nabaritzen da honetan. Zuhaitzetako adarrak bereziak daude eginda, eta kolorearen trataerak lan handia eskatzen du margolan honetan. N. URBIZU

# Maila goreneko Zulueta-ren artelanak

Artista beasaindarrak bizi erdia darama margotzen; Jubilatuen tabernan jarri ditu orain ikusgai bere koadroak

## NEREA URBIZU

Ez dira aukera asko egoten Alegian dauden artelanak etxetik horren hurbil ikusteko: oraingoan Jubilatuen tabernan dauden koadroak landuak dira oso.

Jesus Lopez Zulueta da artista: Beasainen bizi den bilbotarra da, baina ikasketak ere Venezuelan egin zituen. Margolaria zen gaztetan, delineatzaile; baina beste motatako margoa lantzen zuen. Iñaki Kruzeta margolariaren eraginagatik eta harek sentiarazten zion *inbidia sanoagatik* erabaki zuen margotzeaz bizitzea.

Erabakia gogorra izan zen, eta baita margolariaren ibilbidea ere. «Askotan, ekonomiarengatik ezin duzu erakusketa bat behar bezala ezagutzera eman: galeriak alokatu egin behar dira, besteen artean, eta garestia da. Marketina da ia gehien kostatzen dena», azaldu dio Hitzari Zulueta. Gehiago landu beharreko arloa dela uste du artistak.

Zulueta-ren estiloa definitzerako orduan ez da erraza zehaztea: kubismoarekin lotu izan da, lerro eta itxura geometrikoak ere ikusten direlako, baina berak «konstruktibismoaz eta modelajeaz» hitz egiten

du, bere teknikarekin loturik dagoelako; izan ere, konplexu samarra da. Papera erabiltzen du *eraikitzeko*: paperak babesten du kolore batek besteaz. Honela, margo maila ezberdinak lortzen ditu, eta baita marren sentsazio hori. Oreatu ere egiten du, gehien bat, ezkoa erabiltzen duelako, eta berak nahi duen eremua ematen dio, kolore bereziak honela ere lortuz. Geruza ezberdinak ere sortzen ditu honela; honek lan handia suposatzen dio.

Zulueta-k krema koloreak ditu gustokoena, baina biole-tak eta malbak erabiltzen ditu



**JESUS LOPEZ ZULUETA**  
MARGOLARIA

«Ekonomiarengatik, askotan ezin duzu erakusketa bat behar bezala antolatu, galeriak garestiak dira»

azkenaldian. Alegiako erakusketan, dena dela, kolore arreak ikus daitezke.

Gaiak garaiaren arabera lantzen dituela dio: gizakiaren sorrera askotan bilatzen saiatu izan da, pilotako koadroetan, esaterako. Serieak bezala egiten ditu: Kontxako barandatuaren gaia ere landu izan du, zaldiak, loreak... baina ia beti jorrratu izan duena pertsonak lanean edota eguneroko bizitzako gauzak egiten, jendea tertulian, arrantzaleak lanean...

«Giza gorputza egitea gustatzen zait: mugimendua, eta gorputzaren forma bera ere gustatzen zait. Horregatik, dantzariak egitea, adibidez, gustatzen zait». Horietakoak ere ikus daitezke Alegiako Jubilatuen tabernako erakusketan. Orotara, 11 lan jarri ditu bertan.

Bestalde, Zulueta margolari profesionalak Beasainen mural ederrak ditu ikusgai, eta Arangoitin, esaterako, hirugarren adinekoen egoitzan dago bat ikusgai.

Zulueta-ren lanak hilaren 21a arte izanen dira ikusgai eta erosgai Alegian. Bizitza mami-tua izan duen artista honen obraren parte txikia bada ere, merezi du ikustera joateak: maila altuko lanak dira.



**Txindoki oinean dantzan.** Argi asko ikusten da gizakiaren irudia. Horieta ere bere tekniketako bat somatzen da, alegia, paperarekin lantzen duena, honela marrak eta irudi geometrikoak sortuz. Honetan kubismoarekin duen antzekotasuna ere ageri da. N. URBIZU



**Gaugiro.** Bere tekniketako bat agerian geratzen da: moreak, lilak eta malbak oso erabiliak dira, iluntasuna irudikatzeko. Honetan ere emakumeak agertzen dira sareak konpontzen. Ezkoa eta pastelaz egina dago hau ere, erakusketako gehienak bezala. N. URBIZU



**Pilotariak pilotalekuan.** Euskal folklorea lantzen du askotan Zulueta-k. Kasu honetan kirola landu du, non gizakiaren sorrera ere honen bidez bilatu nahi duen. Mugimendua ere irudikatu du. Kolore bereziak lortzeko hainbat kolore geruza jartzen ditu artistak. N. URBIZU

LEITZA ▶

Estazioko lanak hustutzeko eskaera



J. ASTIBIA

Leitzako Udalak Nafarroako Gobernuari Estazioko eraikinak hustutzeko eskatu diola jakinarazi du, ohar baten bidez. «Gaur egun Plazaolako eraikinen itxura eta egoera aintzat harturik eta behin betiko egoera legala argitu ondoren» egin omen du eskaera hori Udalak. Lokalak Nafarroako Gobernuarenak direlarik, «horiek bere gain hartu ditzala» eskatu dio. Era berean, «Udalaren asmoa eraikinak txukuntzea eta moldatzea» dela esan du. «Horregatik lokal horiek hustutzeko eskaera egin dio Nafarroko Gobernuari, hortik aurrera txukuntzen eta erabiltzen hasteko».

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
  - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
  - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
  - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
  - ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
  - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
  - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
  - ▶ Orendain. Medikua: 655595
  - ▶ Tolosa.
    - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

ABERRI EGUNA ▶

Aberri Egunean herriz herri ekitaldiak egingen dituzte

Eguerdiko hamabietarako deitu dituzte, Udalbiltzak egindako deiri jarraituz

JAIONE ASTIBIA

Igandean Aberri Eguna ospatuko da Euskal Herrian. Modu bateko edo besteko alderdiek bakoitzak bere aldetik egingen ditu ekitaldi politikoak. Bitartean, Udalbiltzak egindako deialdiari jarraituz, herriz herri ekitaldiak egingen dituzte goizean zehar, Tolosaldean eta Leitzaldean ere.

«Gure eskubideen aldeko konpromiso sendoa. Euskal Herria. Nazioa» izanen dute datz ekitaldi hauek. Aberri Eguna «gure herriaren aitortza eta eskubide demokratikoen aldeko aldarrikapen eguna» dela baieztatuz, «egoerarik gogorrenetan ere herri zahar honen oihua ozen entzun» izan dela ekarri dute gogora, eta «euskal herritarrok, Euskal Herri osoan, gure herriaren etorkizuna askatasunean erabakitzeko» eskubidea, aurten «inoiz baino ozenago» aldarrikatu beharrekoa dela adierazi



laz Leitzako teilatu batean ere jarri zuten ikurriña. J. ASTIBIA

EKITALDIAK ▶

**ADUNA**  
10:00-12:00. EHNaren tramitazioa.  
12:00. Ikurriñari agurra musikariekin eta dantzariekin; Udalbiltzaren deklarazioa irakurriko dute.  
**Ondoren.** Hamaiketakoa, Txulobi elkarteak.

**LEITZA**  
12:00. Herriko plazatik, manifestazioa. Han, ekitaldia.

**LIZARTZA**  
10:00. Goiz deia.  
12:00. Udaletxe aurrean, ikurriñari omenaldia.  
**Ondoren.** Hamaiketakoa.

dute. Izan ere, erabaki ahalmen hori jotzen dute abitzear den prozesuaren «mamizat».

Hala, herriz herri eguerdiko 12:00etarako ekitaldiak deitu dituzte. «abertzale orori horietan parte hartzeko gonbidapena» egingez eta etxeetan ikurriñak jartzeko eskaera egingez.

Bide batez, goizeko ekitaldi hauen deitzaileek, Udalbiltzak Iruñeko Anaitasuna kiroldegian, 18:00etan hasita egitekoa duen nazio ekitaldira joateko deia ere egin diete herritar guztiei.

**TOLOSA**  
12:00. Plaza Zaharrean ekitaldia.

**VILLABONA**  
12:00. Udaletxe atarian ekitaldia, Udalbiltzaren deklarazioa irakurriko delarik.  
**Jarraian.** Txalapartariak eta dantzariak. Eta pintxo dastaketa.

LEITZA-ARESO ▶ EUSKARA

Bai Euskarari Ziurtagirien jarraipenerako teknikaria behar dute Leitzaldean

Euskararekin iaz hartutako konpromisoen ebaluaketa egitea izanen du bere eginkizuna

J. ASTIBIA

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranon aritzeko, «Bai Euskarari Akordioaren aurtengo ebaluaketa egiteko» langile baten beharra duela plazaratu du Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordeak.

Urtero egin ohi dute Bai Euskarari Ziurtagirien ebaluaketa. Ziurtagiridunek urtean zehar, hain zuzen ere.

bat konpromiso hartu zituzten iaz: beren lana eta zerbitzua euskaraz ere egiteko eta emateko bidean, bakoitzak urrats batzuk aurrera emateko konpromisoak hartu zituen. Orain, horiekin nola moldatu diren ebaluaketa egiteko tenorea dela jakinarazi dute. Hala, lan horretaz arduratzeko teknikaria kontratatuko dute eta horretarako deialdia egin dute, hain zuzen ere.

HITZARI igorritako oharrak dioenez, langile horren eginkizuna, lehen aitaturako lau herri horietako eragilei «Bai Euskarari Akordioa aurkeztea eta konpromisoen fasea lantzea» izanen da. «Lanaldi osoan», apirilaren bukaeratik ekainaren azkenera arteko iraupena izanen omen du kontratuak.

Hautagai izateko bete beharreko baldintzetan, eskatzen dute «Batxilergoa edo Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasketak izatea», herri batetik bestera mugitzea nahitaezkoa denez «gida-baimena eta au-

toa izatea», eta noski, «euskara jakitea». Edozein moduz, «bertakoa izatea, euskalgintzan aritzea, harremanetarako gaitasuna eta erraztasuna izatea, eskarmentua eta informatikoko gutxieneko ezagutza izatea» baloratuko omen dituzte.

Hauta-probak apirilaren 24etik 28rako astean egingen dituztela esan dute, egun zehatza izangaietako jakinaraziko omen zaielarik. Izena emateko epea, berriz, hil honen 20ean bukatuko da. Leitzaldeko Euskarari Ziurtagirien deitu behar da horretarako.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inkesta.** Besteak beste: «Zer egiteko asmoa duzu Aste Santuko opporraldian? Hondartzara joango naiz; mendian txangoak egingo ditut; herriak eta hiriak bisitatuko ditut; ahaideak, lagunak... bisitatuko ditut; besterik.» Bide batez, nahi den mezua ere igorri daiteke.

**ARAMBURU**

Salgai (Tolosa). Pisua Belate lañeam. 75 m<sup>2</sup>.  
Salgai (Tolosa). Pisua San Frantzisko, 17. 140 m<sup>2</sup>. Garajea aukeran.  
Salgai (Tolosa). Pisua Laramendi kalean. 112m<sup>2</sup>.  
Salgai (Berrobi). Pisua, barazta eta txabola. 168,00 euro.  
Salgai (Tolosa). Lokalak. Amaroiz auzoan, Kale Nagusian eta Belate ibilbidean.  
Salgai (Ibarra). Lokala 60m<sup>2</sup>.  
Salgai (Tolosa). Garajeak Plaza Zaharrean, Pedro de Tolosa eta Leidioren.  
Alokatzeko (Alegia). Pisua segituan alokatzeko.  
Alokatzeko (Anezuel). Pisua segituan alokatzeko.  
Alokatzeko (Anoeta). Pisua guztiz prestatua, besterik.  
Alokatzeko (Ibarra). Pisua, Julian Gayarre kalean.  
Alokatzeko (Tolosa). Lokala giroketa, Foru kalean.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Bi lokal komertzial ondoan, Laskorain kalean.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

iragarki laburrak ▶

<p><b>LANA</b> Sukaldaria. Lekunberriko taberna batean sukaldaria behar da. Deitu 948 504 005ra.</p>	<p><b>EROSKETAK</b> Lursaila. Lursaila erosten da zuhaitzekin. Telefono zenbakia: 615 74 19 06.</p>
--	---





Harpidedunei banatua ▶ 2006ko apirilaren 13a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO  
EGURALDIA



**AGENDA ▶**

**ANTZERKIA**

**Orendain.** Kultur Atelietrek *Ingurumena* antzezlan eskainiko du etzi, larunbata, 17:00etan, udal areto nagusian.

**DEIALDIAK**

**Baliarrain.** Hilaren 30ean txekor jatea egingo dute baliarraindarrek Atari Soro pilotalekuan. Txartelak salgai daude Zartagi jatetxean, 25 eurotan.

**Ibarr.** Langostino Moto Kultur Elkarteak 180 kilometro inguruko irteera antolatu du hilaren 30ean, igandea. Hamaiketakoarekin 6 euro izango dira. Izen-ematea, 670 41 79 15 (Moski), 658 75 15 91 (Tximas) eta 636 40 31 70 (Ander) telefono zenbakietan.

**Tolosa.** Gazte Topaguneak Txuri Urdinera irteera antolatu du hilaren 23an, igandea. Izen-ematea, Kultur Etxean.

**Villabona.** VII. Amodiozko Gutun Lehiaketa antolatu du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Lanak udaltxean entregatu behar dira, Euskara Zerbitzuan. Hilaren 28a izango da horretarako azken eguna.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Jesus Lopez Zulueta margolanak. Hilaren 21era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

**Tolosa.** *De rebeldia y poesia.* Angela Mejias eta Antonio di Bellonio artisten argazkiak. Maiatzaren 5a arte ikus daitezke, Aranburu Jauregian. **Tolosa.** *Poesia movil.* Enrique Zalduaren margolanen erakusketa.



**Bederatzi talde Gaztetxe Borobila proban**

**VILLABONA ▶** Onddo Gazte Asanbladak antolatutako Herri Olinpiadak aurrera doaz. Azkeneko proba Gaztetxe Borobila izan zen, eta bederatzi taldek hartu zuten parte. Lau joku egin zituzten,

betiere borobil formako zerbait tartean zela: zutaiak jaurti eta makila batean sartzea, zailtasun ugari izan zituen txapa ibilbidea, dardo jaurtike-ta eta toka jolasa. E. GOROSTIDI

Hilaren 22ra arte, Aranburu Jauregian. **Tolosa.** *Azala.* Joseba Mercaderren argazkiak. Hilabete osoan ikusgai, Lanbroa tabernan. **Tolosa.** Seve Iglesiasen margolanak. Hilaren bukaerara arte, Sorron enmarkazio dendan.

**IKASTAROAK**

**Bidegoian.** Botika naturalen ikastaroa izango da hilaren 24an eta 27an eta maiatzaren 4an eta 5ean, 14:30etik 16:30era bitartean, balio antzeko gelan. Izena eman daiteke udaltxean. 4,50 euro balio du ikastaroak.

**MUSIKA**

**Tolosa.** Deskontrol eta AEBetako American Static musika taldeen kontzertuak. Bihar, 22:30ean, Bonberenean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
**Tolosa.** Etebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Xabi Agirre.  
Zorionak eta muxu bat zure urtebetetzean.



**URTE ASKOAN**  
Asier Pildain Aiestaran (Tolosa). Gaur 3 urte.  
Zorionak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Alex Maiza Rodriguez (Alegia). Gaur urtebete. Zorionak eta muxu handi bat eteloken partetik. Balez ere anaia Antzengandik.



**URTE ASKOAN**  
Ireber Iglesias. Igandean urtebete. Zorionak zure lehengusua Eloy eta Zuriñe eta familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Miren Aranalde Ramiro (Berastegi). Bihar 2 urte.  
Zorionak guztion partetik.

Urtebetetzeak,  
urrezko ezteiak,  
ezkontzak,  
jaioberriak...

**hitza**  
agurren  
tartea

**hitza**  
argazki  
lehiaketa

opor hauetan atera argazkiak

**ARGAZKIAK NORA BIDALI**

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

**OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info**

**Sari nagusia**

**BIDAIA** paregabe bat zure neurria

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan

**Bidaia Agentzia bidaide**

Ernioeoa, 6-behea • 20150 Villabona  
Tel.: 943 692 693  
bidaide@gruposercom.com

**ZOKETA APARTAK**

**PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE** guztien artean HITZAren motkila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira